

EUSKOKAR

Ez ibili bila, hartu gure gorpila!



Proiektuaren deskribapena:

Gure enpresa karabanen alokairu zerbitzua ematean datza, txoferraren zerbitzua eta guzti. Aldi baterako karabanak eskaintzen ditugu, asteburu pasa edo zubi pasa joateko. Parrandaz-parranda gozatzeko aukera paregabea izan daiteke festa zaleak direnentzako, gainera, familiaz gozatzeko eta erlaxatzeko eskapada berezi eta desberdin bat egin nahi dutenentzako ere primeran dago!

Karabanen alokairu zerbitzuaren bidez, lagunartean eta familiako kideekin asteburu pasa kanpora irtenaldi ezberdin bat egiteko aukera paregabea izango da. Gainera, gidatzea gustuko ez dutenentzat, edo 18 urtetik beherako gazteentzat, txofer zerbitzu bat ere izango dugu. Txoferrak egingo ditu bidaia guztiak segurtasun handiz.



Gazteen artean gero eta zailagoa da jaietan merke lo egiteko aukerak bilatzea. Horregatik, karabanen alokairua proposatzen dugu malgutasun puntu bat lor dezagun gazteok.

Zerbitzuak hauek izango dira: Karabana alokatzea gidaria barne bezeroaren esanetara edo guk proposatutako ibilbideak egiteko aukera izango dute, bai kulturalak bai jaietakoak. Aldi berean, ez gara merkatu segmentu bakar batera oinarrituko, baizik eta zabaltzen saiatuko gara adin guztietako pertsoneri zerbitzuak eskaintzen.